

2025EKO PARTE-HARTZE IZAERAKO AURREKONTUAK

II. FASEA

Itzultze-txostena

AURKEZPENA

Beste urte batez, Getxoko Udalak abian jarri du parte-hartze izaerako aurrekontuen prozesua.

LEHENENGO FASEA **2024ko urtarrilaren 25etik otsailaren 18ra bitartean** izan zen, udalerriko getxoztarren ekarpenak eta proposamenak biltzeko. Ildo horretan, prozesuan parte hartu zuten getxotarren iritzia baliagarria izan zen **2024ko irailaren 12tik 22ra** bitartean egin den BIGARREN FASEAri edukia emateko.

Era askotako ekarpen ugari jaso ziren lehen fasetik, honako proiektu hauek proposatu dira bigarren fase honetan herritarrek balioztatzeko eta lehenesteko. Esleitutako proiektuak eta kostuak honako hauek izan dira:

II. FASEAN HERRITARREK LEHENETSI DITUZTEN PROIEKTUAK

PROPOSAMENEN ZERRENDA	AURREKONTUAREN ZENBATEKOA (gutxi gorabeherakoa)
Aisialdi publikoko espazio bat estaltzea (haur-parkea edo plaza)	550.000 €
Bizikleta garbitoki bat jartzea Areetako hondartzaren ondoan	12.000 €
Txakurrentzako aisialdirako gune itxi gehiago	50.000 €
Txurruka eta Aldapan kalistenia gune berriak jartzea eta Ereagakoa hobetzea	130.000 €
Andra Mari merkataritza-gunea sustatzeko azterlan bat egitea	30.000 €
Oinezkoen eta txirrindularien arteko elkarbizitza-kanpaina bat egitea	13.000 €
Gobela Kiroldegiko padel eta tenis pistak estaltzea	600.000 €
Galeako gotorlekuaren ingurua egokitu eta garbitu eta bisita gidatuak egin historia ezagutzeko	156.000 €

Parte hartzeko, Getxoko herritarrek eta erakundeek puntu 1etik 8 puntura puntuatu behar zituzten planteatutako proiektu guztiak.

Getxoko Udalak 1.000.000 € bideratu ditu parte-hartze izaerako aurrekontuetara; beraz, ez litzateke posible izango proposatutako proiektu guztiak gauzatzea, proiektu guztien batukari orokorra prozesurako ezarri den zenbatekoa baino handiagoa baita.

Lehenespenaren bidez, herritarrak beren lehentasunen inguruan kokatzea lortzen da, eta proiektuen multzoa beheranzko lehentasun-ildoan kokatzen da.

Jarraian, parte-hartzearen lehenengo zein bigarren faseetan herritarrek parte hartzeko gaitu ziren bideak azaltzen dira:

- Boto-ontziak Algortako eta Areetako Erromoko Herritarren Arretarako Bulegoetan (HAB), Fadurako eta Gobelako kiroldegietan, Villamonteko Kultur Etxean, RKEn eta San Nikolas liburutegian.

- Herritarrek parte hartzeko udalaren web orriaren bidez prestatutako formulario digitala betez: zeugaz.getxo.eus
- Fadura kiroldegiko *hallean*, Algortako geltokiko plazan, Bidezabaleko anbulatorioko plazan eta Areetako geltokiko plazan kokatutako informazio-moduluak, 9 egunez, kokaleku guztietan.
- Algorta, Areetako eta Bidezabal geltokien eta Benta inguruan ekarpenak jasotzeko prestatutako postontziak.

Txosten honetan adierazitako partaidetza-prozesuaren emaitzek azterlan sozial eta estatistikoen berezko kalitate-estandarrak jarraitu dituzte, emaitzen egiazkotasuna eta fidagarritasuna bermatuz, baita datuen zaintza zorrotza eta anonimatuen eta konfidentzialtasunaren bermeak ere, Datuak Babesteko Euskal Bulegoarekin eta Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoarekin bat etorritik.

BIGARREN FASEKO PROZESUAREN DESKRIBAPENA

Herritarrei zuzendutako aurrez aurreko parte-hartze bideak eta bide birtualak uztartzen dituen metodologiaren bitartez egituratu da parte-hartze izaerako aurrekontuen prozesua. Zehazki, udalerrian erroldatuta dagoen 16 urtetik gorako edozein pertsonak izan du parte hartzeko aukera, bai eta elkarteek, fundazioek, sindikatuek, enpresa-elkarteek, elkargo profesionalek, zuzenbide publikoko korporazioek eta udalerrian errotuak dauden eta izaera juridikoa duten hainbat arlotako erakundeek ere.

Prozesua ikusaraztea eta hura publiko egitea barne hartzen dituen sozializazioan oinarritu da komunikazio-prozesua:

- Prozesuaren zabalkundea GetxoBerri udal asteroko argitalpenaren bidez.
- Erakundeen gizarte-sareak.
- Prozesuaren sustapen-bideoak (fase bakoitzeko bideo bat)

BIGARREN FASEAREN EMAITZAK

Parte-hartzearen emaitzak

Bigarren fase honetan 991 galdetegi jaso dira, proiektuei egindako balorazioekin beteta.

Jaso ondoren, datu pertsonalak udal-erroldarekin erkatu ziren, eta egiaztatu zen galdetegi guztiek parte hartzeko beharrezko baldintzak betetzen zituztela:

1. Udalerrian erroldatuta egotea.
2. 16 urte edo gehiago izatea.
3. Datu pertsonalak bete izana.
4. 1etik 8ra bitarteko balorazioak egitea, 1 puntuaziorik txikiena eta 8 puntuaziorik handiena izanik, puntuazioak errepikatu gabe eta proposatutako proiektu guztiak balioztatuz.
5. Pertsona bakoitzeko behin baino gehiagotan ez parte hartzea.

991 baliozkoak ziren, eta 61 baliogabeak, hainbat arrazoiengatik.

Balorazioaren osteko boto-multzotik:

Parte hartzeko bideak:

ZEUGAZ	179		
PAPEREAN	812		
	BOTO-ONTZIAK	99	
		HAB ALGORTA	8
		HAB AREETA-ERROMO	5
		FADURA	5
		GOBELA	20
		VILLAMONTEKO KULTUR ETXEA	14
		RKE	43
		SAN NICOLAS LIBURUTEGIA	4
	POSTONTZIAK	93	
		ALGORTA	43
		AREETA	29
		BIDEZABAL	16
		ANDRA MARI	5
	MODULUAK	620	
		ALGORTA	188
		AREETA	193
		BIDEZABAL	150
		FADURA	89

Parte-hartzaileen adinaren arabera azterketa eginez:

ADIN - TARTEA	PAPEREAN PARTE-HARTZEAK
16 - 30	101
31 - 50	344
51 - 70	234
71 - 85	133

Beraz, guztira 812 paperean egindako partaidetza daude; horietatik 479 emakumeak dira eta 333 gizonak.

Parte-hartzearen emaitzak

Parte hartzeko bigarren faseko emaitzak, paperezko eta Zeugaz plataforma digitalekoak puntuazioak batuta, honako hauek izan dira:

PROPOSAMENAK	Paperezko inprimakiaren bidez lortutako puntuak (A)	Zeugaz bidez lortutako puntuak (B)	A+B puntuen batura	Aurrekontuaren zenbatekoa (gutxi gorabeherakoa)
Aisialdi publikoko espazio bat estaltzea (haur-parkea edo plaza)	4.700	1.055	5.755	550.000 €
Galeako gotorlekuaren ingurua egokitu eta garbitu eta bisita gidatuak egin historia ezagutzeko	4.364	945	5.309	156.000 €
Gobela Kiroldegiko padel eta tenis pistak estaltzea	3.569	841	4.410	600.000 €
Txurruka eta Aldapan kalistenia gunen berriak jartzea eta Ereagakoa hobetzea	3.493	788	4.281	130.000 €
Oinezkoen eta txirrindularien arteko elkarbizitza-kanpaina bat egitea	3.527	696	4.223	13.000 €
Txakurrentzako aisialdirako gunen itxi gehiago	3.391	726	4.117	50.000 €
Andra Mari merkataritza-gunea sustatzeko azterlan bat egitea	3.328	696	4.024	30.000 €
Bizikleta garbitoki bat jartzea Areetako hondartzaren ondoan	2.860	697	3.557	12.000 €

Epigrafe honetan, bigarren faserako hautatutako proiektuen balorazioetatik jasotako behin betiko emaitzak jasotzen dira.

Datuen argitan ikus daitekeenez, "Aisialdi publikoko espazio bat estaltzea (haur-parkea edo plaza)" da proiekturik bozkatuena.

Bigarrenik, "Galeako gotorlekuaren ingurua egokitzea eta garbitzea eta bisita gidatuak egitea bere historia ezagutzeko" eta hirugarrenik, "Gobela kiroldegiko padel- eta tenis-pistak estaltzea".

Bestalde, azken postuan dago "Andra Mari merkataritza-gunea sustatzeko azterlan bat egitea" eta "Bizikleta garbitoki bat jartzea Areetako hondartzaren ondoan".

Tarteko puntu batean, honako hauekin lotutako proiektuak daude: "Txurruka eta Aldapan kalistenia gune berriak jartzea eta Ereagakoa hobetzea"; "Oinezkoen eta txirrindularien arteko bizikidetza kanpaina bat egitea" eta "Txakurrentzako aisialdirako gune itxi gehiago".

Emaitzak eta erantzuna ematea

Lortutako emaitzak ikusita, udalak hurrengo adierazi nahi die herritarrei, prozesuaren emaitzak jakinarazteko:

- "Aisialdi publikoko espazio bat estaltzea (haur-parkea edo plaza), 2025eko aurrekontu parte-hartzaileen proiektuak lehenesteko fasean boto gehien jaso dituen proposamena izan da.
- Milioi eurokoko mugaren barruan babes handiena jaso duen hurrengo proposamena "Galeako gotorlekuaren ingurua egokitu eta garbitu eta bisita gidatuak egin historia ezagutzeko" izan da.

Lehenengo bi proiektuak 706.000 eurokoak dira. Hirugarren Proiektua batuz gero, 600.000 €, partaidetza-aurrekontuetan ezarritako mugaren 1.000.000 euro baino gehiago izango litzateke. Hala ere, aurrekontua aprobetxatzeko, 294.000 € inbertitzeari utziko litzaiokeenez, gainerako proiektuak egingo dira parte-hartze prozesu honetan herritaren eskaerei erantzun bat emateko.

Horrela, 2025eko aurrekontu parte-hartzaileen ondorioz garatuko diren proposamenak honako hauek dira:

1. Aisialdi publikoko espazio bat estaltzea (haur-parkea edo plaza).
2. Bizikleta garbitoki bat jartzea Areetako hondartzaren ondoan.
3. Txurruka eta Aldapan kalistenia gune berriak jartzea eta Ereagako hobetzea.
4. Oinezkoen eta txirrindularien arteko elkarbizitza-kanpaina bat egitea.
5. Txakurrentzako aisialdirako gune itxi gehiago.
6. Andra Mari merkataritza-gunea sustatzeko azterlan bat egitea.
7. Bizikleta garbitoki bat jartzea Areetako hondartzaren ondoan.

Udalak positibotzat jo du herritarrek ekimen honetan parte hartzea, ekarpenak 2025. urteko udal-aurrekontuetan sartzeko.